

[b]

BARREN

ELGOIBARKO ASTEKARIA

632. zkia.

XV. urtea

2007ko urriaren 26a



Naia Membrillera eta Maite Janeiro

Akordeoia odolean



Etxebizitzan sustapen berria
Elgoibarreko
Santa Klara kalean

Argibideak:

943 608 187

659 940 682

Sustatzaile:





OIHANA TARRAGUAL

Aberatsa naiz hipotekarik ordaindu behar ez dudalako.

Aberatsa naiz ixilik egon behar denean, ixilik egoten dakidalako.

Pako Aristi idazlearen egia borobilak dira.

Ibai, ni ere aberatsa naiz Actimel hartu ordez baserriko esne ederra edaten dudalako.

Aberatsa naiz nire herrian semafororik ez dagoelako.

Aberatsa naiz maite dudan jendearekin munduko azken muturra atzaparrekin ikutzeko kapaza naizelako.

Duela aste batzuk Izarraitzen izan nintzen familiarekin. Han, diru asko duen eza-gun batekin egin genuen topo. Munduko hainbat txokotan dituen etxez hitz egiten hasi zenean, zera galdetu nion: "Etxe guztiez disfrutatzeke aukerarik ba al duzu?". Ezetx erantzun zidan, berak hoteletan pasatzen omen du denbora gehiena. Eta diruak zorientasuna ematen ote duen galdetu nionean, Izarraitzen, bertako aterpetxean txorixo muturra jaten zela zorientasu esan zidan. Nik, irrifartsu orduan, disfrutitzen ez dituen etxe horietako bat niri emateko esan nion.

Azken txorixo muturra jan eta sagardoa edanaz, irrifartsu amaitu genuen guztiok gure solasalditxo.

Guztiok gara aberats.
Hori bai, zertan?

ZOZOAK BELEARI...



IBAI PORTU

Aberatsak izateko aberats sentitu behar dugu, bestela alferrik da. Baina horretarako aurrez gure mugak onartu behar ditugu.

Nahi duzun hori lortzeko borrokatu baldin baduzu, eta bukaeran, bideko oztopoak gainditu eta gero, lortutakoaz gozatzen badakizu, orduan aberatsa zara.

Gertatzen dena da nahi duguna zer den askotan ez dugula garbi edukitzen. Eta dakigunean, batzuetan beldurrek, batzuetan azken orduko zalantzek, atzera botatzen gaituzte aberastasuna lortzeko bidean.

Eta orduan oso zaila egiten zaigu nahi bezain aberats izatea lortzen.

Nahiz eta hipoteka bat izan, nahiz eta aktimelak gustatu, ni gogoz sentitzen naiz nahi ditudanekin munduko azken muturreraino iristeko.

Oihana, diruarekin ez dator aberastasuna, erosotasuna baizik. Baina diruarekin lortu dezaket zure lehen esaldia betetzea, adibidez.

Zure Izarraitzeko laguna gustura ikusiko nuke, bere milaka euroengatik paparra atera beharrean, txorixo batekin emozionatua.

Azken finean gizaki hutsak gara, eta barrenetik sentitzen duen edonor izan daiteke aberats edonon, edonoiz, zeren bila dabilen baldin badaki.

«Guztiok
gara aberats.
Hori bai,
zertan?»

OIHANA

«Diruarekin ez da
aberastasunik,
erosotasuna
baizik»

IBAI



ABERATSA, INPERNUKO ETSAIA



Esaera zaharra

Azken ostirala

Gure bizitzarekin eta gure senideenarekin jolastuz jarraitzen dute espainiar eta frantziar estatuek. Gure senideei zer nolako gaixotasun fisiko eta psikikoak eragiten dizkieten azaldu nahi dizuegu. Bi estatuen espetze politikak hil egiten du, eta egun indarrean dituzten salbuespen neuriekin gure senide gehiago hil ditzaketela jakinarazi nahi dizuegu.

Estatuok hori guztia inpunitate osoz egiten ari dira. Inpunitate osoz ezartzen dizkiete gure senideei gaixotasun larriak, baita heriotza bera eragiten dieten neurri kriminalak ere: bizi arteko espetze zigorrak, isolamendua, urruntasuna eta osasun asistentzia eza, esaterako. Eta neurri horiek gu, senide eta lagunok ere, gogor kolpatzen gaituzte. Egitera behar-tzen gaituzten milaka kilometroen ondorioz, istripuak eta izugarriko odoluste ekonomikoa jasaten baititugu preso dituzten gure senideak bisitatu ahal ditugunok. Asko dira, behartutako kilometro horiek guztiak medio, euren senide presoak ikusi gabe urteak daramatzatenak

ere; urteetan aurrera egindako ala gaxorik diren gurasoak, seme-alabak, anai-arrebak, lehengusuak edo lagunak. Berrez izugarrikoa den sufrimendua areagotu egiten digute bi estatuek gu geu ere kolpatuz.

Amaitu egin behar dugu egoera honekin! Nola? Herritarok presio eginez. Gu eta gure senideak jasaten ari garen errealtate gordin honekin kezkatuta gauden herritar guztiok konpromisoak hartuz. Herriz herriko dinamikak bultzatu behar ditugu. Bakoitzak bere herrian lan egin behar dugu errepresaliatu politikoen eskubideen defentsan. Estatuaren inpunitatearen errepresioaren aurka. Horrela lortuko dugu Euskal Herri osoak "aski da!" oihukatzea. Euskal Herriko herri bakoitzak lanean jardunez. Beraz, barru-barrutik hori eskatzen dizuegu. Konpromisoak hartu, indartzeko; preso gaixoak eta kondenak beteak dituztenak askatzera behartzeko bi estatuak. Euskal presoak dagozkien eskubideen jabe Euskal Herriratzera behartzeko bi estatuak. Horrela lortuko dugu egun inposatu diguten erreali-

tate gordin honekin, inpunitate honekin amaitzea. Animo eta lanera, beraz!

ELGOIBARKO ETXERAT

OHARRA:

Azaroaren Lean Santu Guztien Eguna denez, BARREneko langileok jai-zubia egingo dugu eta ez dugu aldizkaririk kaleratuko. Hurrengo alea azaroaren 9an jasoko duzue.



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefono zkia**.



ESKERTZA

2007ko urriaren 19an, hil zen **Agustin Artola Bergaretxeren** sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



barren

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
 ☎ 943 74 41 12 • Faxa: ☎ 943 74 37 04
 E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
 Publizitatea: ☎ 943 74 37 04 • E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:



ELGOIBARKO IZARRIA
 X. LEHIAK. E. P. 1973

KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Oier Narbaiza
PUBLIZITATEA Leire Rubio **MAKETATZAILA** Zalao Amaiz **KOLABORATZAILAK**
 Antton Alberdi, Uxue Alberdi, Oihana Apellaniz, Eguzkiñe Aranberri,
 Jon Eugi, Ion Garate, Aitzol Gamendia, Juanito Gorostiza, Amaia
 Gorrotxategi, Sare Gurutzaga, Imanol Larrañaga, Ainhoa Lendinez,
 Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Ane Odria, Maialen
 Olazabal, Jasone Osoro, Inigo Otaño, Alain Ulazia, Maite Uriarte,
 Unai Villena, Alaitz Vives **INPRIMATEGIA** Gertu **TIRADA** 4.650 ale
LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 **ISSN** 1139-1855



KEXAK

• Ubitarte-Burun egiten ari diren Babes Ofizialeko Etxeak adreiluzko munstroak dira: "Nire kexa eta haserrea azaldu nahi dut Sigmako zubiaren ondoan egiten diharduten Babes Ofizialeko Etxeak direla-eta. Batetik, inguru horretan zegoen espazio zabal eta libre bakarra etxetz josi dute; eta, bestetik, 8 pisuko etxeak egiten dihardute! Zer esan behar dute pareko etxeetakoek?"



• Egunero San Lorentzora pasiaran joaten den emakume batek ondorengo eskaera egin nahi du: **San Lorentzorako bide-gurutzean Albitxuriko enpresen izenak markatu behar dira:** "Azkarateko bide zaharrear, Basartera eta San Lorentzora hartzeko bide-gurutzean, Albitxuriko industriagunean dauden enpresen izenak markatu behar dira, nire ustez. Izan ere, San Lorentzora joaten garenok trailer edo kamioi bat baino gehiago ikusi dugu San Lorentzoko elizaraino iristen, enpresa non dagoen asmatu ezinik. Gero, gizarajoak han ibiltzen dira kamioari buelta eman ezinda".



TXALOK

• Txalo bero Elgoibartik Maltzagarko bidean Abiadura Handiko Trenaren kontrako murala marraztu dutenei: "Guztiok borrokatu beharko genuke Abiadura Handiko Trenaren kontra, naturaren kontrako txikizioa gelditu behar dugu. Honelako muralakin jendeak gai honekiko kontzientzia hartu behar du. Gutxi batzuek ezin dute proiektua gelditu, baina indarrak batuta, lortu daiteke".

Atal honetarako kexak, txaloak edo galderak helarazteko:

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12



Elgoibarko
Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza





URRUZUNOREN *Luma*

Afaria

Senarra eta emaztea afaltzen ari dira, aurrean pizturik duten telebistari begira. Bakoitzak mekanikoki errepikatzen du errituala: goilara zopatan sartu eta ahoratu egiten du. Informazio saioa hasi da telebistan. Informatiboko aurkezle lirainak hitz egiteari ekin dio: "Gaur Irakeko merkatu batean bonba-auto bat lehertarazi dute eta 150 lagun hil dira". "A zer nolako sarraskia, eh?"-egin du komentarioa emazteak. "Bai, sekulakoa", erantzun dio senarrak. Biek zopa jaten bukatu dute eta bigarren platera jateari ekin diote. Gizonak haragi xerra, emakumeak, aldiz, arraina. "Ogia pasako al didazu?", galdetu dio senarrak. "Tori", eman dio emazteak. Esatariak albiste gehiago eman ditu, bertakoak, nazioartekoak, kirolari buruzkoak... Bikotearen isiltasun gordina esaltzen jarraitu du.

Ion Eugi

[ZORTZIKO TXIKIAN]



JESUS ASTIGARRAGA

KARAKATE
ELKARTEKOA

• **Aurtengo denboraldia ona izaten ari da hemen?**

Orain hotz handia egiten ari da gabez eta moztu egiten da, baina tenporada ona da.

• **Zer egon da gehien?**

Onddoak. Gibelurdinak eta urritzak gutxiago oraindik; sasoi honetan izaten dira gehiago. Moztu egin da hotzarekin, baina hasiko dira.

• **Zergaitik ez da lehiaketarik egin?**

Aranzadik hori kendu nahi zuen. Elgoibar azkena izan da lehiaketa hori egiten. Sentsibilizazio kanpaina egiten ari gara.

• **Jendeak gehiegi hartzen du, orduan?**

Gehiegikeria dago. Perretxikoak lana egiten du mendian eta onuragarria da zuhaitzentzat eta. Zaindu egin behar da. Komertzializatzeko hartzea da txarrena.

• **Zer egin daiteke gehiegikeriarik ez gertatzeko?**

Sentsibilizazioa. Legeak jarri behar dira hartu duzun kopurua mugatzen. Komertzializazioa moztu egin behar da.

• **Ultzamako neurria ondo iruditzen zaizu?**

Ez, komertzializazioa ez dute kendu. Irabazi monetarioa herrikoentzat izango da, baina gehiegikeria berdin egingo da.

• **Espezieak galtzen ari dira?**

Bai, Alemania eta Italian aspaldi hasi ziren alarma jotzen.

2008ko Gida Komertziala

Elgoibar eta Mendaro



lazko gidan zure negozioko telefonoa agertu ez bazen,
deitu zenbaki honetara **943 74 37 04** edo helbide honetara idatzi:
barren.publi@elgoibarkoizarra.com

[AKORDATZEN NAIZ]



ITZIAR AJURIA

1924an jaioa

«Bizikletia»

Kotxeko kameta ere ez naban sekula etara. 50 urtetik gora eukiko nittuan nik, eta andereño batek esaten zidan kameta etartzeko, baiña gero ezingo naban kotxerik ekarri, eta ez naban etara. Trenian ibiltzen giñan gu batetik bestera, kamioian ere junda gaude gu Debara. Urtebetian egon giñan koadrillan zineran jun gabe, dirua aurreratu eta bizikletia erosteko. Astian 8 pezeta aurreratzen genduan. Erosi genduan bizikletia eta lehenengo egunian azidentia. Hartu bizikletia Plaza Txikixan eta, orduan aldapia zavan fundiziotik behera, eta ez genduan frenau.

Sasiolan barreria zavan lehen trenan pasatzeko eta itxitxa zavan barrera hori. Hasi giñan lagunerik diharda, frenazo demasa eman zebe eta lurrera jausi ziran bi lagun. Beste baten, lagun berak, paretan kontra jun ziran. Batak eskuturra apurtu, bestiak eskurik ez zabanez ipiñi, aurpegi aldia markauta, kolpia ederra. Klinikara eruan zittuen, Arrillaga klinikara. Heridu bat ekartzen zebenian, ume danak begira jauten giñan. Gu bazkaltzen gauden, eta han ikusi nittuan nere lagunak klinikara

eruatzen. Bixaramonian nere lagunak izekok esan zigun bizikletak saldu egin bihar zirala. Hainbeste kostau eta gero!

Jaixan Debara jauten giñan bizikletan, ez pentsau erreza zanik. Lehen Karkizaoko aldapatik jauten giñan, behekua ez zaguan eta! Zati bat oiñez, beste bat bizikletia eskuan hartuta! Mendaron ere beste aldapa bat zaguan. Lehenengo gora eta gero behera. Bazixen nere laguna belozidarian, eta txakur bat zavan lurrian etzanda. Frenatzeko esan nion, baiña txakurra gaiñetik pasau zan. Gero, galdetzen zaban ia atzetik segitzen zion txakurra. "Segitu? Edarki laga don, ba!".

Oso ondo pasatzen genduan. Ordubete egitten genduan jauten, ordubete uretan sartuta eta beste ordubete bueltan. Neka-neka eginda sartzen giñan ohera.



[GURE BERBAK]

Morfologia (7): ZERTZAT

Prolatiboa ere esaten diue hizkuntzalarixak. Laguntzat euki, tontotzat jo eta horretari-kuak dira honen erabillerak.

Zenbaitt aditzek eskatuta erabiltzen da kasu-marka hau (euki, jo, eman...), eta muga-gabeko formia besterik ez dauka (ez da mugatuan erabiltzen: ez singularrian, ez eta pluralian ere).

Ez da onargarrixa adiera horretan azken urtietan entzuten dan hau:

**Lagun bezela euki dot urtietan.*

Bezela ustel horrekin ere agertu izan dira bestelako egitura badaezpadako batzuk:

**Andereño bezela dago Zizurkillen.*

Horren orde, nahikua da honela erabiltzia:

**Andereño dago Zizurkillen.*

Hona prolatiboaren adibide bat, elgoibartar baten ahotik jasua:

„Andria noiz ezagutu zendun? _Handikan denporara, bastante denporara izango zan, ze normalizauta zavan geria. Behintzat geria ya amaitutzat ero hamen bueltetan.

Jesus Mari Makazaga



ESKERTZA

2007ko urriaren 18an, hil zen

Luis Romero Matamorosen sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



MAITE JANEIRO ETA NAIA MEMBRILLERA ZERO SETTE AKORDEOI TALDEAN

AMA-ALABAK ORKESTRAN

Familiaz datorkio akordeoia jotzeko zaletasuna Maite Janeirori. Aititak eta aitak bazekiten giroa alaitzen instrumentu horrekin. Orain, Zero Sette akordeoi orkestra ospetsuan jotzen du, Naia alabarekin batera. Taldearen hogeigarren urteurenean murgilduta harrapatu ditugu ama-alaba elgoibartarrak, kortzertu, entsegu, grabazio eta ospakizun artean.

Normalean eguaztenetan izan ohi dituzte entseguak, Lasarte-Orian. Mendaro eta Debako beste bi lagunekin batera egiten dute joan-etorria.

Gauerdirako etxean. "Gerta liteke hiru entseguko astea izatea eta asteburuan kontzertua", azaldu du Maite Janeiro akordeoi joleak.

"Badakizu: *sama con gusto*" dio. Egia esan odolean darama Maitek akordeoia jotzeko zaletasuna. Etxean beti jo izan dute, bai aititak, bai aitak. Eta Naia alabak ere tradizio horri heldu dio, nahiz eta Zero Sette akordeoi orkestran perkusioa jo.

Alaba ere pozik dabil. "Etxean geldituz gero, berandu joaten naiz lotara, telebista ikusten... Azterketa ostegun e z

ipintzen badidate, martitzenean ikasten dut", azaldu du. Asteburuetako agenda bete-betea dute biek. Izan ere, gabonak arte akordeoi emanaldi ugari eskainiko dituzte Zero Sette taldearekin. Aste honetan Estatu frantziarreko iparraldean joko dute, Freyming-Merlebach herrian. Hurrengo egunetik zapatara hiru kontzertu eskainiko dituzte Extremaduran.

Hogei urte

Europa osoan ezaguna den Zero Sette taldeak hogei urte egin dituzenez aurreten, ospakizun ugari parte hartu behar izan dute. Irailaren 29an Lasarte-Orian antolatutako akordeoi jaialdia berezi-berezia izan zen. Nathalie Boucheixek, Enrike Zelaia eta Elsen Akordeoi Orkestrak parte hartu zuten, Zero Settez gain.

Jaialdirako, gainera, CDa kaleratu zuten, taldearen bigarrena. Maitek eta Naiak diska grabatzea lan handia dela nabarmendu dute. "Asteburu osoa grabatzen sartuta. Goizean jo, bazkaldu eta berriztu jotzera. Hurrengo egunean, berriro!", azaldu du Naia.

«Zuzendariak animatu ninduen orkestran sartzeko»

Zero Sette orkestra 2004ko otsailean sartu zen Maite. Taldea lasartearra izanik, kide gehienak inguruokoa dira. "Elias Goikuria da zuzendaria eta nik aspaldi ezagutzen nuen eta nirekin hitzegi zuten eta sartzeko animatu ninduen", dio Maitek Naia, beriz, aurten sartu da, perkusioa jotzeko.

Ibilbide sendoa du Zero Sette akordei orkestrak. 1987an Jose Antonio Merce-

rok sortu zuen. Errepertorio jakin bat du taldeak eta lan berriak gehitu izan dizkiote. Horrez gain, nazioartean hainbat sari eskuratu ditu. Zero Setteren web orriak Suedia, Bielorrusia, Kroazia, Norvegia, Italia eta Estatu Batuetatik bisita ugari izaten ditu, besteak beste.

Guztira hogeita bost musikarik osatzen dute taldea. Horrez gain, bazkideak

ere badira, kontzertuetako bidaietan lagun egiten dietenak. Betiko klasikoa eskaintzen du Zero Settek ("La boda de Luis Alonso", zarzuelak, pasodobleak...) baina doinu modernoak ere badira, alor guztiak ukitzeko ahalegina egiten dutelako. Euskal musika edo sanbak ere eskaintzen dituzte. Doazen lekura doazela, hango pieza ezagunen bat jotzeko ohitura daukate.



Maite Janeiro

Zumarragan jaioa. Irakasle titulatu. 16 urteik irakaskuntzan. Zumarragako Musika Eskolan hasi bazen ere, Elgobarkoan dabil irakasle, martxan jarri zenetik.

Orkestra eta taldeetan jardun du, teklatura jotzen batez ere.

Musika Eskolako akordeoi taldea zuzentzen du. Hainbat lehiaketatan parte hartu ondoren sariak lortu ditu eta harro dago horrekin.

Pozik dago Zero Sette orkestrak lortutako emaitzekin. "Horrek aurrera jarraitzea nahiko nuke, arrakasta honekin", adierazi du. Taldeak oraindik ez du Elgoibarren eta gustatuko litzaioke herrian kontzerturen bat eskaintzea.

Naia Membrillera

15 urte. DBHko 4. mailako ikaslea. Akordeoia txikitatik jotzen du. Musika Eskolan dihardu ikasten. laz perkusioari ekin zion. Perkusioak hainbat ate zabalduko dizkiola usate duenez, etorkizunean kontserbatorioan sakondu nahi du. Hala ere, ez du akordeoia laga nahi. Oraindik ez du Zero Setten jotzeko moduko mailarik, baina etorkizunean soina jotzeko eskatuko baliote, egingo luke.

Zero Sette akordeoi orkestrak ospe handiagoa izatearekin egiten du amets. Behintzat euren musikak zaletu gehiago izatea gustatuko litzaioke eta kanpoan jotzeko aukera gehiago izatea.

Moda kontuak

"Gaur egungo gazteei akordeoia ez zaie gustatzen. Jende nagusiarri gustatzen zaio", uste du Naiak. Egungo musikan instrumentu eta aukera berri mordoak sortu da. "Game-Boya bezalakoa da: berria ateratzen denean denek nahi dute, eta ez zaharra". Bere amak aldaketa garbi ikusi du. "Hasi nintzenean klase partikularekin, 70 urteik gora neuzkan. Lehen baino instrumentu gehiago eskaintzen dizkiete ikasteko", azaldu du. Horrez gain, trikitixak ere lekua hartu dio soinu handiari eta gazteek beste instrumentu batzuen aldeko hautua egiten dute. Hala ere, kontzertuetara gerturatu izan diren gazteak oso pozik irten direla uste du Naiak.



Maite Janeiro, eskumatik bigarrena, Zero Sette orkestraren emanaldi batean.

[PROTAGONISTA]



Josefa Ugarteburu

Josefa Ugarteburu Agirrego-
mezhorta hil zen urriaren 19an, 78
urte zituela. Aubixako Joxepa esa-
ten zioten herrian. Aubixa baserriko
alaba izanik, 38 urterekin jaitsi zen
kalera bizitzera, baina handik urte
gutxira berriro itzuli zen San Pedro
bailarako baserrira. Elgoibar Ikastola-
k Aubixa baserria udaleku modura
aprobetxatzeko hartu zuen eta
Joxepa Ugarteburu izan zen lehenengo
langilea. Ordurako Ikastolako irakasleei
bazkaltzen ematen zien Joxepak. Hamabi
urte inguru eman zituen Aubixan lanean,
bertara joaten ziren ume eta begiraleak
zaintzen.

[NOTIZIA]

Enpresa munduan euskara sustatzeko 30+10 mintegia izan zen atzo IMHn

Ereminta Makina Sektoreko enpre-
suntzako 30+10 mintegiaren bigar-
ren edizioa izan zen atzo IMHn. En-
presen erantzukizun soziala, euskara ba-
liabideak eta praktika onak batu zituen
mintegiak. Sektorearen inguruan dihardu-
ten enpresetara hurbildu eta euskaraz ga-
ratutako praktika onak, zerbitzuak, maki-
nak eta tresnak ezagutzera ematea da
mintegiaren helburu nagusia, hau da, en-
presei euskaraz funtzionatzeko lan-tresnak
badaudela eta euskaraz lan egiteko mo-
dua badagoela ezaltzea.

Partaidetza handia

Josean Egaña IMHko zuzendariak
egin zuen agurra. Jon Zubiaurre alkateor-
dea izan zen udaletxeko ordezkaria eta



Patxi Baztarrika Hizkuntza Politikarako sail-
buruordea, Jaurtaritzako. Ondoren, lehen-
engo euskara planak abian jarri zituzten
enpresei omenaldi txikia egin zitzaizen: Ar-
lan, CAF, Elay, Ikerlan, Ineko, Lurgintza eta
Miibaareto. Enpresa munduko jende asko
bildu zen IMHn.

[ZENBAKIA]

89

Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak "Kuadrillategi"
egitasmoa jarri du martxan, DBH1 eta DBH2. maila-
koentzat. Bi maila horietan 181 ikasle daude Elgoiba-
rren, eta horietatik 89 gaztetxok eman dute izena.
Bihar izango da lehenengo saioa. Antolatzaileak oso
gustura daude egitasmoak izan duen harrerarekin.

asteko [ARGAZKIA]



Liburutegia kalera atera da aste
honetan. Urriaren 24an Liburute-
gien Nazioarteko Eguna izan zen,
eta hori ospatzeko, jendearengana
hurbildu ziren liburutegiko ar-
duradunak. Mahaiak jarri zituzten
San Frantzisko iturri inguruan eta
jende asko hurbildu zen liburuak
edo diskoak ikustera. Arratsaldez
umeen txanda izan zen: Miriam
Mendoza ipuin kontalariarekin
fantasiako bidaia egiteko aukera
izan zuten. Iribarrerik ez zen falta
izan Udal Liburutegian. Horrekin
batera, antzerkira joateko hainbat
sarrera zozketatu zituzten.

Zubibai Elkartekoak ez daude konforme Altzolako parke berriarekin



Zelaia parkean eraikitzen ari diren etxebizitzak eta umeentzako parkea apirilera amaitzea aurreikusten dute Udaleko arduradunek. Alfredo Etxeberria alkateak esan digunez, "lehenengo parkea baino handiagoa izango da eta prestazio gehiago izango ditu". Altzolako Zubibai Elkartekoak, ordea, ez daude gustura parkeak hartu duen itxurarekin: "Eskasa da oso eta, beste behin ere, udaletxe-koek ez dituzte gure aholkuak kontuan hartu. Gainera, datorren urteko apirilera arte ez dutela Zelaia parkea zabalduko esan digute Udalekoek. Segurtasun neurriengatik ez dutela lehenago irekiko azal-

du diguten arren, ez dugu ulertzen, ia amaituta baitago parkea eta bertatik oinez ibil daiteke"

Altzola hobetzeko lanak

Bilera luzea egin dute Zubibai-ko Udaleko agintariekin eta auzoa hobetzeko lanak hasi dira: N-634 errepidean errotonda egiteko proiektua aurkeztu dute Foru Aldundian, Mendarorako norabidean markesina jartzeko eskaria ere egin dute, okupak bertatik bidaltzeko tramiteak hasi dira eta Zubia jatetxean egingo den hotelari buruz ezer ez dakitela erantzun die alkateak. Abenduan beriz bilduko dira.

[MOTZ-MOTZIAN]

Maite Rementeria "Bai ala Ez" lehiaketako irabazle

Hilabete honetan Maite Rementeriak irabazi du BARRENe "Bai ala Ez" lehiaketa. Gabi jatetxean bi lagunentzako afaria tokatu zaio. Parte hartze-ko, 7505 zenbakira SMS bat bidali behar da astero BARRENe egiten dugun galderari bai ala ez erantzunez. Datorren hilean Zumaiako Zelai Talaso Hotelean bi lagunentzako zirku-itoa zozketatuko dugu.



18/98 epaiketako bideo emanaldia

18/98 epaiketa bukatuta dago eta sententzia laster aterako dela dirudi. Epaiketak eman duena jakitera emateko bideo emanaldia izango da urriaren 29an eta 30ean, Kultur Etxeko Hitzaldi Gelan. Egun bakoitzean bi saio eskainiko dituzte, 19:00etan eta 20:00etan.

Esteban Egia San Migeleko zekorren irabazlea

San Migeleko jaietan zozketatu zen zekorrek badauka jabea: 4.194 zenbakiarekin, Aiastiako Mugerza base-riko Esteban Egia izan da irabazlea.



Gabonetako kanpaina iragartzeko kartel lehiaketa



Txankakua Merkataritza Elkartek Gabonetako kanpaina iragartzeko kartel lehiaketa antolatu du. Gabon inguruan, Txankakuako dendetan erosketak egiten dituztenez artean 1.800 euro banatuko dituzte hamar erosketak txeketan eta hori iragartzeko izango da lehiaketaren helburua. 18 urtetik gorako edonork hartu dezake parte lehiaketan eta teknika libre erabili ahal izango dute. Irabazleak 250 euro jasoko ditu. Lanak aurkezteko epea azaroaren 8an amaituko da. Informazio gehiago 943747301 telefonoan (Nerea).

Inkesta

Liburutegien Nazioarteko Eguna izan zen urriaren 24an.

Ba al daukazu irakurtzeko zaletasunik?

MARISOL ARRILLAGA
Musika irakaslea
40 urte



“Bai, gustatzen zait irakurtzea. Edozer gauza irakurtzen dut: ipuinak, egunkariak, aldizkariak... Denbora librea daukadan edozein momentu aprobetxatzen dut.”

M^a CARMEN ZABALA
Etxekoandrea
22 urte



“Ez. Egia esan behar badut, ez daukat irakurtzeko zaletasunik. Ume txikia daukat eta ez daukat irakurtzeko denborarik. Gainera, nahiago dut beste zerbait egitea.”

ROSA M^a MATEOS
Geriatría laguntzailea
32 urte



“Bai. Umeari ipuinak irakurtzen dizkiot gauean, ohera sartu eta loak hartzeko. Nire denbora librean aldizkariak ere irakurtzen ditut. Gustatzen zait irakurtzea.”

ROMAN IGARTUA
Jubilatua
69 urte



“Bai. Egunkaria goitik behera irakurtzen dut egunero. Liburuak gutxiago. Jubilatuek nahiago dute pasiatzea, baina irakurtzea oso ona da. Jendeak gutxi irakurtzen du.”

Jaika
jatetxea

Eguneko menua: 8,50 euro
Karta eta menu bereziak asteburuetan
Pedro Muguruza, 27 behea - Tel.: 943 74 10 29

elgoibar ikastola elgoibar ikastola elgoibar ikastola

ADMINISTRAZIO KUDEATZAILEA behar da
Debabarreneko irakaskuntza kooperatiba baterako

Profila: enpresa-ekonomia titulazioa, euskara, gaztelania eta komunikazio gaitasunak. Interesatuak bidali CVa, astebeteko epean, "AdminKud" erreferentzia aipatuz.

elgoibar@ikastola.net

murrplastik

KOMERTZIAL TEKNIKOA BEHAR DA ERREMINTA MAKINA SEKTOREAN

- Gutxieneko formazioa, 3. graduko zikloa.
- Ingelesa korrisan hartuko da.

Hautagaiaren arabera baldintzak eta soldadak.
Idatzi ondorengo helbidera: quintana@murrplastik.es

murrplastik

- KABLEENTZAT KATEAK
- IDENTIFIKAZIO SISTEMAK
- KABLEENTZAT PLAKAK
- TUBOAK ETA ERRAKOREAK

Murrplastik SL - Ubarbaru 76 - Pabilata 24, Poligono 27
20014 Dorostia - Telefonoa 943 44 48 37 - Faxa 943 47 28 95

Urtea egin dugu eta bigarrenaren bila goaz



Elgoibarko orainkaria izateko espirtuarekin jaio ginen. Elgoibarko notiziak momentuan eman eta munduko edozein puntutatik jasotzeko aukera eskaintzeko nahiarekin.

Elgoibarren berri beste modu batean emateko aurkeztu genuen www.elgoiBARREN.net web gunea. Eta hala izan da. Internetek eta teknologia berriek eskaintzen dizkiguten aukerak aprobetxatuz, BARREN astekariari lagun berria ipini genion aldamenean, bien artean Elgoibarren berri eman eta elgoibartarron berri jasotzeko.

Izan ere, bi helburu nagusirekin jarri genuen martxan proiektu berria:

1. Elgoibarko orainkaria izatea nahi genuen. Notiziak momentuan ematea zen gure desioa, eta munduko edozein puntutatik Elgoibarko berriak jasotzeko aukera eskaintzea.

2. Baina herritarrak proiektu honetan ez dira hartzaile hutsak; eman ere egin dute, notiziak osatuz edo aberastuz, eta iritziak emanaz.

Herritarrak ez dira hartzaile hutsak, eman ere egiten dute

lazko urriaren 23an hasi ginetik, ia 500 notizia eskaini ditugu. Baina, esan dugun moduan, eman dugunak beste garrantzia dauka jaso dugunak. 3.300 komentario inguru egin dituzue irakurleok, eta


horri aparteko garrantzia ematen diogu.

Urtea egin dugu. Urtebete asko izan daiteke, media berria izanik zelan moldatuko zaren ez dakizunean; baina, aldi berean, denbora gutxi da medio honek eskaintzen dituen aukerak zein diren ikusita. Urtebeteko bidea egin dugu; bidean gorabeherak izan ditugu, guk nahi ez genituen ustekabekoak ere bai, baina Internet hori dela esan ziguten hasiera-hasieratik. Eta hala onartu beharko dugu. Lehen urteak erakutsi eta emandako eskarmentuarekin, bigarren urteari ekitera goaz. Eta hasi ginenean moduan, gure nahia zuei ematea eta zuengandik jasotzea da.


Lehen urteko datuak

Duela urtebete, 2006ko urriaren 23an, hasi zuen ibilbidea elgoibarren.net orainkariak. Lehen urtea bete dugu, hor-taz, eta horrelakoetan gertatzen den moduan, laburpenak egiteko eta ondorioak ateratzeko ordua alegatu da. Hona hemen 2006ko urriaren 23tik 2007ko urriaren 18ra *elgoibarren.net*-ek laga diguna.

Bisita kopurua hilabeteka:



elgoiBARREN.net gunera heltzeko bideak:



Datu orokorrak: (2006ko urriaren 23tik 2007ko urriariaren 18ra)	
Bisitari kopurua	115.767
Ikusitako orrialde kopurua	302.978
Ikusitako orrialde kopurua/bisitako	2,62
Webgunean egindako denbora	2:57
Egindako komentario kopurua	3.375
Eman ditugun notizia kopurua	483
Harpidedun kopurua	203
Errejistratu kopurua	102


Gehien ikusi diren albisteak:

Hauexek dira *elgoibarren.net-en* gehien irakurri diren bost albisteak:

1. "Hummer" bat herriko kaleetan	4.019
2. Alfredo Etxeberria, EAJren alkatetzarako zerrenda-burua Udal Hauteskundeetarako	2.942
3. Alfredo Etxeberria Elgoibarko alkate berria, gehiengo absolutorik gabe	2.932
4. Udal Hauteskundeak, Elgoibarko emaitzak	2.344
5. Zuhaitzak ezagutu eta identifikatzeko ikastaroa	2.329
6. Arnaldo Otegi atxilotu du Guardia Zibilak Santa Ana kaleko bere etxean	2.311

Munduari begira

Munduko 81 estatutatik jaso ditugu bisitak. Bisita gehienak honako bost estatutatik egin dira:



ETA BIGARREN URTEAN, ZER?

Estreinako urtean egin duguna hobetzea eta proiektua asentatzea izango da bigarren urterako helburu nagusia. Oker daukaguna konpondu eta kalitatean gora egitea da gure nahia. Lehendik daukaguna hobetu eta finkatu nahi dugu atal berriei ekin aurretik.

Hala ere, badauzkagu nobedade batzuk bigarren urterako. Atal eta zerbitzu berriak prestatu nahi ditugu eta, besteak beste, hauek dira martxan jarri nahi ditugunak:

Blogak: modan daude, eta guk ere gure blog komunitatea osatu nahi dugu, poliki-poliki, hala nahi duten herritarrekin. Bakoitzak nahi duenean eta nahi duenez idatziko du, eta besteok horiek diotena irakurtzeko aukera izango dugu; eta esaten dutenaren gainean iritzia emateko aukera ere bai.

Elkarrizketak: lehen urtean, batez ere, notiziak eman ditugu. Bigarren urtean elkarrizketak sartzea da gure desioa; elkarrizketa sakonak eta luzeak, paperean kabitzen ez direnak. Printzipioz, hileroko elkarrizketa bat eskaintzea da gure asmoa, baina bideak erakutsiko digu zein maiztasun izango dugun atal honetan.

Astehenero: astelehen goizetan asteburuetan gure herrian izaten den kirol mugimenduen erreposoa eskaini nahi dugu. Emaitzak, erretratuak, elkarrizketak, adierazpenak, ...

Iritzi-gela: herritar eta irakurleon iritzi-gela izango da. Gela honetan, besteak beste, gutunak, iritzi artikulua, irakurlearen kexak eta txaloak, eta bestelakoak sartuko ditugu.

Haur eta gazteak: oraindik ideia berde samar badaukagu ere, haur eta gazteekin zerbait egin nahi dugu 2008ko udan hasita.





LUISTXO FERNANDEZ

Aintzindaria Interneten

«Anonimotasuna ez da derrigorrezkoa Interneten; izen-abizenekin ere eztabaida daiteke»

Interneten bide zabaltzailletako bat dugu Luistxo Fernandez eibartarra, bere pasioa eta ogibidea ere baita Internet.

• Zer ekarri digu Internetek?

Komunikazioa errazteko modu handi bat. Jende askoren eguneroko bizitzan sartuta dagoen teknologia indartsua da, nolabait, gizartea aldatzeko eragina baitu. Informatzeko ohiturak; Internetetik jasotzen dut eguneko nire lehen informazio dosia, eta beste gauza asko aldatu dira Interneti esker: komertzio elektronikotik hasi eta giza harremanetaraino.

• Interneten garrantzitsua izango da etorkizunari aurre hartzeko gaitasuna, ezta?

Denbora asko eskaintzen diogu Internet errepatatzeari: notiziak irakurri, blogariak diotena ikusi, zerbitzu berriak probatu, e.a. Hurrengo tendentziak iritsi baino lehen, ahal bada, igartzen eta ulertzen saiatzen gara. Oso inportantea da. Blogen asuntia, adibidez, beste batzuk baino lehenago ikusi genuen Euskal Herrian eta punta-puntan ibili ginen.

• Urriaren 23an urtebete beteko da elgoiBARREN.net martxan jarri genuenetik. Izan al duzu bertan sartzeko aukerarik?

Bai, majo egindako weba dirudi, txukuna, ez du aldaketa askorik behar. Euskarazko hedabide lokalak denbora behar izan dute Inetera salto egiteko, baina informazio lokalak Interneten badauka lekua. Barren-ek ez du denbora askoan urratsik

eman, baina eman duenean oso ondo eman du. Norabide onean zabiltzabela iruditzen zait. Herriko informazioari astean zehar ondo eusten diozuela uste dut.

• Anonimotasunaren moztorrepean Interneten edozer esaten da eta edozertaz.

Jendeak anonimoki hartzen du parte Interneten, askok behintzat. Batzuetan, gaiztoak gara eta maskara baten atzean ezkututzen gara. Tresnak horretarako aukerak ematen ditu, eta jendeak aprobe txatu. Benetako eztabaida eta komunikazioa, baina, aurrez aurre jartzen garenean sortzen da. Izen-abizenekin ere eztabaida daiteke Interneten. Jokoaren erregelak zehaztean dago gakoa, gauzak guk nahi bezala antolatu ditzakegu-eta.

«Gizartea aldatzeko teknologia indartsua da Internet»

• Zer da “zarata” Interneten?

Anonimoak elkarrekin pilatzen direnean, ‘zarata’ handitzen da eta zerbait interesgarria esateko daukatenean ahotza baxuago geratzen da edo ez da entzuten. Alabaina, badaude mekanismoak foroak erregulatzen.

• Erregistroa jarri ondoren, komentarioen kopurua asko jaitsi zen elgoiBARREN.neten.

Kontrol neurri batzuk beti hartu behar dira. Ate guztiak irekita lagatzen badituzu, azkenean kakaz betetzen dira foroak. Horren aurrean, betiko txoropitoak zentsura dela esanez aterako dira. Zer zentsura eta zer kristo! Muntatu dezatela eurena, ezta? zapuztera doazen suntsitzaileei bidea moztu behar zaie, ahal baldin bada, beti ez baita posible. Interneten erraza da txorakeriekin gauzak zapuztea eta saiatu behar zara defendatzen, gutxienez. Ez etsi, amaitu baino lehen.

• Blogekin hasteko asmoa daukagu.

Zerbait interesgarria kontatzeko daukaten elgoibartarrak lortzen badituzue, aurrera. Sinadura inportanteena ez da herriko idazle famatu hori, jende arruntak ere gauza interesgarriak kontatzen ditu blogetan. Blogak obligazioz ezin dira sortu, ordea, norbaitek gogoia eduki behar du zerbait kontatzeko.

• Zer leku dauka euskarak Interneten?

Eguneroko bizitzan bezala, gaur egun, euskaldun izatea, konpromiso pixka bat edukitzea da. Natural euskaldun izatea zaila da. Kalera atera eta beti daude problemak. Interneten ere erdi konpromiso pixka batekin, edo berez ateratzen delako, euskarazko jarduna egon badagoela eta sustatu daitekeela uste dut.

[GOMENDIOA]

Haurra ez datorrenean... pazientzia

Bikoteak duen guraso izateko desira asko geroratzen bada, frustrazio, antsietate, min eta amorru bihur daiteke. Umea edukitzeko pausoa ematea erabaki denean, gertakizuna hilerok-hilerok itxaroten da, urduritasun eta ilusioz, menstruazio egunetan, batik bat. Gorputzak ezer aldatu ez dela iragartzen duenean, baliteke guraso izango diren horiek frustrazio krisi latza bizitzea.

Hilabete joan, hilabete etorri, emakumea haurdun gelditzen ez bada, denbora bihurtzen da bikotearen etsairik okerrera. Etsipenak agertu eta frustrazioa nonahi azaltzen da, tristezia, amorrua, inpotentzia sortaraziz eta sexu-harremanak antsietatez kargatuz. Honelako topaketek berez sortarazten duten atsegina gehienetan bazterturik, ugaltzea izango du bikoteak helburu lehenetsia. Desira antsietateak zokoratzeak, berriz, erdietsi nahi den horren lorpena orduan eta gehiago zailduko du. Sentsazio horrek eraginiko min eta amorrua era guztietatik bideratzen dira.

Pazientziaz itxaroteko aholkuak

- Geure kezka gertuko edo konfiantzako pertsonekin hitz egitea.
- Bizitza normaltasun eta optimismoz bizitzea, umea izate kontu hori bizimoduaren ardatz egin gabe.
- Zaindu elikadura, lo orduak eta ariketa fisikoa.
- Zaindu bikotekidea, komunikazioa landu.
- Eman garrantzia laztan eta ferekari, maitasuna eta itxarondia elkarrekin, bat eginik, sentitu ahal izateko.
- Neurrigabeko tristezia, antsietatea, errudun-sentimendua edo beste norbaitekin izateko premia sentitzen bada, profesional batengana jotzea.
- Profesional horrengan erabat sinistea eta, berarekin batera, eman beharreko pauso egokienak erabakitzea. Harengan erabat ez sinetsiz gero, hobe tratamenduari hasiera ez eman eta beste batengana joatea.



[OSASUN GIDA]



MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

Kemen Belardenda

("Dieta erraza" Mehetzeko tratamendua... Medikuntza naturala, Bach loreak, masaia, makrobiotika, janari biologikoak, nutrizio eta osasun ikastaldiak.)

San Bartolome, 25 • Tel: 943 74 40 31

Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

Sanatana Dharma Yoga Elkarte

Urasandi, 9 • Tel: 943 74 85 93 (Idoia) / 685 722 131

Astearte eta ostegunetan:

10-11:30/13:00-14:00/15-16:30/18-19:30/20-21:30

Mendaro

Astelehen eta asteazkenetan: 10-11:30/15-16:30

Astearte eta ostegunetan: 20:00-21:30

OPTIKAK

Ikus Optiko-optometrista

San Bartolome, 10 • Tel: 943 74 37 34

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

Uzuri

(Optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)

San Frantzisko, 21 • Tel: 943 74 03 59

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

HORTZ KLINIKAK

Irale

Erosario Kalea, 7 behe (Elgoibar) Tel: 943 74 36 79

Zeharkalea, 8 behe (Ermua) Tel: 943 17 71 34

e-posta: irale@irale.com - weba: www.irale.com

FISIOTERAPIA

Ainhoa Fisioterapia

Eragozpen fisikoa egongo balitz etxeko zerbitzua eskeintzen da. Tel. 943 53 19 53 / 669 565 745 (Goiz eta arratsalde)

Jausoro, 6 behe

Amalurra Fisioterapia

Ordubeteko tratamendu manualak. Goiz eta arratsalde.

San Frantzisko, 58 behe (Maalan) • Tel.: 943 53 14 63

Olatz Fisioterapia

(Minarentzako tratamendua, erredukazio posturala, prebentzioa, erlajazioa, masaia, reiki)

San Roke, 1 - Tel. 696 821 149

Egunero: 9:00-13:30 / 15:00-20:00

ORTOPEDIKAK

Itziar Sarasketa

San Frantzisko, 12 • Tel: 943 74 35 62

Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

PODOLOGOAK

Oinberri

Erosario kalea, 25 • Tel: 943 74 17 95

Astelehenetik ostiralera: 9:00-13:30 / 15:00-19:30

Gidan agertu nahi baduzu, deitu 943 74 37 04ra

MUSIKA ESKOLA

Ameikutz Musika Eskolan ehun umetik gora matrikulatu dira

Irailan ireki zituen ateak San Agustin Kultur Guneko Ameikutz Musika Eskolak. Aurtengo ikasturtean ehun ume baino gehiago matrikulatu dira, eta aukerak ere gero eta gehiago dira. Hasiera batean instrumentuen eskaintza txikia bazen ere, gaur egun denetarik ikas daiteke: trikitixa, perkusioa, pianoa, flauta, gitarra edo koroa. Gabonetan kontzertua eskainiko dute.

Musikazale talde baten ametsa

Mendaroko musikazale talde baten ametsa egia bilakatu zen 2002. urte inguruan, baina lanean askoz lehenago hasi

ziren. Mendaro herri txikia izanik, ez zen erraza musika eskola irekitzea. Irakasle bakoitza bere aldetik hasi zen lanean, norbera bere etxean.

Oztopo guztien gainetik aurrera egitea erabaki zuten eta elkarte moduan hasi ziren funtzionatzen.

Egungo egoera oso desberdina da, asko aldatu da eta hobera egin du. Eusko Jaurlaritzak Musika Eskola egitura eman dio Ameikutz elkarteari, eta orain Mendaroko Musika Eskola da. Udalarekin hiru urteko akordioa sinatu zuten finantzazioa eta irakasleen egoera hobetzeko.



Mendaroko bost odol emaile omendu dituzte

Debabarrena eta Debagoieneko odol emaileen kongresua izan zen Arraten joan zen domekan, urriaren 21ean. Bertan Deba bailarako hainbat odol emaile omendu zituzten, eta horien artean, bost mendaroarrak: Javier Rubio, Ibon Kerejeta eta Juan Loiola, odola 25 aldiz emateagatik, eta Begoña Ansola eta Mari Tere Lazaro-baster, 40 aldiz emateagatik. Meza Nagusia entzun eta bazkaria egin zuten. Omendu guztiek intsignia eta diploma jaso zituzten.

Udalerako aparejadore eta eginbehar anitzetarako langileak

Hilabete honetan egin dira Mendaroko Udalerako aparejadorea eta eginbehar anitzetarako langileak aukeratzeko probak. Oraindik, ordea, ez da aukeraketa prozesua amaitu: eginbehar desberdinetarako langileak kontratatzeko hirugarren proba urriaren 29an izango da, goizeko 11:00etan Donostiako Altza auzoan dagoen Eraikuntza Institutuan. Aparejadore posturako hurrengo proba, bestalde, urriaren 31n izango da, goizeko 9:00etan Mendaroko udaletxean.

Iker Maiorak zortzigarren postua eskuratu du



Iker Maiora Mendaroko korrikalariak Zumaiako Zakila Bira lasterketan hartu zuen parte eta zortzigarren postuan sailatu zen. 20 kilometroko ibilbidea 1'10"02 denboran burutu zuen. Guztira 704 korrikalarik hartu zuten parte proban eta Maiorarekin batera, beste herritar batzuk ere izan ziren: Soto (1'13"34), Jon Larrañaga (1'22"55), Igor Ezenarro (1'23"59) eta Haritz Gokoetxea (1'29"23).



"Kortaberi" aizkolaria hil da

Jose Elorza "Kortaberi" aizkolaria ospetsua hil zen joan zen astean, 79 urte zituela. Hamasei urterekin egin zuen debuta aizkora munduan, Zarauzko Zinema frontoian eta, ordutik, proba garrantzitsu askotan hartu zuen parte. 1968an Espainiako Beteranoen txapelketan bigarren lekuan sailkatu zen, Polipasoren atzetik. Erretiratu zenean omenaldia egin zioten Azpeitian. Goian bego.





JOSE ALBERTO NEIRA

ONCEko kupoi saltzailea

«ONCEko sari nagusia eman dudanetik kupoi gehiago saltzen ditut»

Zazpi urte daramatza Jose Alberto Neirak kupoiak saltzen. Goizetan Mendaroko Ospitalean egoten da eta arratsaldean Ermuan egiten du lan bera. Urriaren 12a ez du erraz ahaztuko gizon honek, izan ere, ONCEko sari nagusia eman baitzuen: zazpi milioi euro inguru banatu zituen, eta esan digunez, eskualde osoan ondo banatuta geratu da dirua.

• **Zer sentitu zenuen ONCEko sari nagusia eman zenuela jakitean?**

Ezin nuen sinistu. Bezero batek deitu zidan goizeko 1:00etan. Lo nengoen eta hasieran txantxetan ari zela pentsatu nuen. Ohetik altxatu eta Teletextan begiratu nuen. Egia zela ikusi nuenean oso pozik jarri nintzen, baina urduri aldi berean. Gau guztia loak hartu ezinik egon nintzen. Hurrengo egunean ospatu nuen sari txikiak tokatu zaizkien zenbait lagunekin.

• **Honelako saria eman duzun lehenengo aldian izan al da?**

Zazpi urte daramatzat kupoiak saltzen eta hasi nintzenean beste sari handi bat eman nuen, baina oraingoan beste diru ez dut inoiz banatu. 60 milioi pezeta izan ziren orduan; oraingoan 1.178 milioi pezeta izan dira.

• **Ba al dakizu nor izan den sari handiaren irabazlea?**

Ez, hori jakitea ez da erraza izaten. Sari txikiagoen jabeak etorri zaizkit eskerrak ematera eta opariren bat edo beste ere jaso dut. Dirua ondo banatuta geratu da eskualdean; Mutriku, Deba, Ermua... oso pozik nago.

• **Saria eman duzuetik gehiago saltzen al duzu?**

Bai. Horrelakoa da jendea, saria tokatzen denean denak animatzen dira kupoiak erostera. Guretzako oso garrantzitsua da

sariak ematea, azken batean, saltzen dugunaren araberakoa baita gure soldata. Eskualdeko saltzaileoi bultzada handia emango digu sari horrek. Azkenaldian jendeak kupoi gutxi erosten zituen. Kupoiak erosi eta saririk ez tokatzeak jendeari ilusioa kentzen dio. Urte asko egon gara sari handirik gabe.

• **Sariak ematea ala jasotzea duzu nahiago?**

Nire lana ilusioa eta suertea banatzea da eta, alde horretatik, oso pozik nago eman dudan sariarekin. Sekulako satisfazioa izan da niretzako, kupoi saltzaile batentzat hori da gertatu ahal zaion gauzarik onena. Hala ere, badaukat kupoiaren bat niretzat hartu ez izanaren pena; sari txikia izan arren, gustura hartuko nuke diru hori.

• **Jar zaitetz une batez sari nagusiaren jabearen lekuan. Zer egingo zenuke hainbeste dirurekin?**

Askotan imajinatu dut egoera hori, irabazlearen lekuan jarri naiz behin baino gehiagotan, baina egia esan behar badut, ez dakit hainbeste dirurekin zer egin nukeen. Benetan tokatu arte eta dirutza horren jabe izan arte, ezin da jakin. Baina, bueno, gauza asko egingo nituzke, seguru. Pentsatzen dut sari potoloa irabazi duen pertsona txartelarekin dirua atera eta atera ibiliko dela, batetik bestera, beldurrik gabe euroak barra-barra gatzatzen.



«Dirua ondo banatuta gelditu da eskualdean; pozik nago»



GIPUZKOAKO BERTSOLARI TXAPELKETA

Irungo kanporaketan Uxue Alberdi izan zen onena

Uxue Alberdik final erdietara zuzenean sailkatzea lortu zuen domekan, Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako Irungo final laurdenean, emaitzarik onena lortu ondoren. Elgoibartarrak 482 puntu eskuratu zituen, Jon Martinek baino lau gehiago. Hirugarren Unai Muñoa izan zen.

Irungo Amaia Antzokia jendez gainezka egon zen, bertsolariak 600 lagun elkartu baitzituzten. Giroa ere paregabea izan zen, ikusleek jarritako kartel eta guzti. Horrek izan zuen saioan eraginik, bertso bikainak entzuteko aukera paregabea izan zen-eta.

Zortziko handi eta txikian bertso onak izan ziren. Hamarreko txikian Alberdi eta Oiarzabalaren lanaldia nabarmendu zen. Kartzelakoan, azkenik, bertso politak entzun ziren.

Alberdirekin batera, Jexux Mari Irazuk lortu du final erdietara zuzenean sartzea. Irazuk Uxuek lortutako puntuazio berbera eskuratu zuen zapatuan Azkoitiko final laurdenetako kanporaketan.

Final erdietan zer bertsolari izango diren erabakitzeko, final laurdenetako kanporaketek amaitu beharko dute. Hiru falta dira: bihar Eibarren, domekan Zumaian eta azaroaren 4an Tolosan.



Musika Bandaren kontzertua

Udal Musika Bandak kontzertua esakiniko du domekan, urriaren 28an, 12:30etan Herriko Antzokian. Terolen "Las Provincias", Von Supperen "Flotte Bursche" obertura, Manciniren "The pink panter", Chuecaren "El chaleco blanco" selekzioa eta Manciniren "The best of Mancini" fantasia joko du.

Kartel lehiaketa

Bereziartua Musika Eskolak 2008ko "Elgoibarko Herria" Instrumentu Taldeen VII. Lehiaketarako kartela aukeratzeko lehiaketa zabaldu du.

Gabon Zahar Feria

Gabon Zahar Ferian bertako produktuak saltzeko postua jarri dutenek abenduaren 20a baino lehen eman beharko dute izena.

Umorea eta musika eskainiko ditu Ron Lalak antzokian



Ron Lala konpainiak "Mi misterio del interior" antzezpena taularatuko du Urriaren 9an Herriko Antzokian, 22.15etatik aurrera. Ikuskizunerako txartelak aldeztatik salgai jarriko dituzte, 8,5 euroko prezioan, Kultura Sailean goizez eta Gazte Informazio Bulegoan arratsaldean.

Ron Lalak umorea eta zuzeneko musika eskaintzen ditu bere saioetan. "Mi misterio del interior" antzezlanean hainbat musika mota izango dira entzungai.

Bost artista izango dira taula gainean eta sketch komikoak eskainiko dituzte. Ikuskizun umoretsua izango da, kritika eta poesiaz betea.



ESKERTZA

2007ko urriaren 19an, hil zen

Josefa Ugarteburu Agirregomezkortaren sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



FUTBOLA

Hamar denboraldiren ondoren, Pedrusco taldea desagertu egin da



Pedrusco Futbol Taldeak hamar urte egin zituen iazko denboraldian, baina aurten ezin izan dute talderik osatu. Jose Mari Orvesagasti presidenteak esan digunez, sei jokalaririk bakarrik zeuden jarraitzeko moduan eta "honela ezinezkoa da taldea osatzea". Hiru jokalaririk Elgoibarko erregional taldera joan dira eta gainontzeko hirurak Sorraluze, Lagun Onak eta Eibar-

tarrak taldeetara. Sigma auzoko lagun koordinatzaile batek sortu zuen Pedrusco taldea, eta oihartzun handiko taldea izan da herrian. Bigarren erregional mailan hasi eta berehala igo ziren lehen erregionalera. Zortzi urte egin dituzte maila horretan. Harrobirik gabe, ordea, ezin izan diote hasierako ilusioari jarraipenik eman. Hamar urteko historia laga du idatzita Pedruscok.

Asteburuan hasiko da Euskadiko Hiru-Txirlo txapelketa



Euskadiko XVIII. Hiru-Txirlo txapelketa bihar hasiko da Bolibarko Iruzebieta bolatokian. Elgoibartik San Migeleko taldeak parte hartuko du, bakarkako kategorian eta baita taldeka ere. Txapelketa arratsaldeko 16:30ean hasiko da. Azaroaren 10ean Elgoibarren jokatuko dute, San Rokeko bolatokian. Izena emateko bost euro ordaindu beharko ditu jokalaririk bakoitzak. Irabazleak 65 euro jasoko ditu, bigarrenak, berriz, 50 eta hirugarrenak, 35.

Igeriketa ikastaroa Olaizaga kiroldegian

Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak jakinarazi duenez, Olaizaga kiroldegiko igeriketa ikastaroetan izena emateko epea urriaren 29an bukatuko da. Izena ematen duten guztien artean urriaren

30ean, eguerdiko 12:00etan, Olaizaga kiroldegian bertan egingo da zozketa aurtengo ikasturtean martxan jarriko diren igeriketa ikastaro berrietako plazak betetzeko.

[EMAITZAK]

ESKUBALOIA

Muskiz 16 - Tecnifuelle 14 (Senior neska)
 Bidasoa 35 - Pneumax 23 (Jub. mut.)
 Bidasoa 49 - Tecnomeca 6 (Kad. mut.)
 Cometel 25 - Pulpo 20 (Jub. neska)
 IMH 42 - Pulpo 8 (Kad. neska)
 Caldereria Lili 11 - Aterpe 20 (Inf. neska)
 Casa Astigarraga 21 - Aloña 12 (Inf. neska)
 Arrate Txiki 20 - Bankoa 21 (Inf. mut.)
 Arrasate 9 - Txariduna 29 (Inf. mut.)

ARETO FUTBOLA

Kenci 7 - Sasikoa B 2 (Euskal Liga)
 Aloña Mendi 6 - Elgoibar 6 (Jub.)

PILOTA

Lagunak 22 - Añorga 20 (Kad.)
 Lagunak 22 - Elordi Herriagintza 9 (Jub.)
 Lagunak 11 - Añorga 22 (Nag.)
 Aurrera 22 - Lagunak 12 (Nag.)

[AGENDA]

FUTBOLA Mintzetan

Zapateria, 27
 13:00 Elgoibar - Tolosa (Kad.)
 17:00 Haundi - Zamudio
Domeka, 28
 12:00 Elgoibar - Intxaurre (Inf.)

PILOTA Ikastolan

Barixakua, 26
 21:15 Lagunak - EPLE (Kad.)
 22:00 Lagunak - Intza (Jub.)
 22:45 Lagunak - Beloki (Nag.)

ARETO FUTBOLA Kiroldegian

Domeka, 28
 9:15 Xagua - Fortuna
 12:00 Elgoibar - Azpeitiko (Jub.)

ESKUBALOIA Kiroldegian

Zapateria, 27
 9:00 Aterpe - Urola (Inf. neska)
 10:00 Txariduna - Aloña Mendi (Inf. mut.)
 11:00 Bankoa - Arrasate (Inf. mut.)
 17:00 Tecnomeca - Egia (Kad. mut.)
 18:30 Pneumax - Egia (Jub. mut.)
Domeka, 28
 10:30 Tecnifuelle - San Adrian (Senior neska)

Behobia-Donostiarako autobusa

Udal Kirol Patronatuak Behobia-Donostia lasterketarako autobusa jarriko du. Interesatuak Olaizaga kiroldegian eman dezakete izena, azaroaren 9a baino lehen. Bazkideek 12 euro eta gainontzekoek 15 euro. Hilaren 11n, goizeko 8:30ean aterako da autobusa King-Kong-etik.

[ETXEBIZITZAK]

SALMENTA

▶ Pisua salgai Pedro Muguruzan. 65m². Logela, berogailu zentrala. Eguzkitsua, dena kanpoaldera. Merke.

☎ 661974330/943743530

▶ Etxea salgai Erretxindin. 4 logela, sukalde berritua, eguzkitsua, ganbara, balkoi handia. Fatxada eta igogailua berritua.

☎ 628115677

▶ Etxea salgai erdialdean. Hiru logela, sukalde, egongela, komuna eta trasteleku txiki bat.

☎ 637124868

▶ Buhardilla salgai Altzolan.

☎ 695776373

▶ Etxea salgai Bernardo Ezenarro 9an, 80m². Igogailua, gas naturala leihoaraino, ganbara 15m²koa, berritua. Garajea aukeran. Prezio interesgarria.

☎ 665735660

ALOKAIRUA

▶ Logela alokatzen da.

☎ 943741881

▶ Pisua hartuko nuke alokairuan.

☎ 646832693

[GARAJE eta LOKALAK]

▶ Lokal merkea hartuko nuke.

☎ 630700272 (Jenny)

▶ Lokala salgai erdialdean. 25m².

☎ 677731061 (Alfonso)

[BESTELAKOAK]

▶ Cocker Spanier ingeles txakurkumeak salgai. ☎ 635747785

▶ Borda erosiko nuke.

☎ 676402851

▶ Dalmata arrazako txakurkumeak salgai. Pedigriarekin.

☎ 636135319

[AUTOAK]

▶ Opel Corsa DTI sport autoa salgai. Egoera onean.

☎ 620578702

▶ Opel Astra DTI 2.0, 16v salgai. 7 urte, 170.000km. Egoera onean. 5.500 euro. ☎ 619582582

▶ Opel Astra 1.6 autoa salgai. 16v. Merke. ☎ 697363407

▶ 250cc Suzuki RMX motorra salgai. 1.300 euro. ☎ 646279610 (Mikel)

OHARRA

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak lau astetan agertuko dira. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta 12 euro eta alokairua 8 euro. Autoak 8 euro. Eta bestelakoak 5 euro. Asteazken eguerdia baino lehen. Tel.: 943 74 37 04

LANA

ESKAERA

• Neska garbiketa lanak egiteko prest.

☎ 647840033/943531103

• Emakumea nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketarako prest.

☎ 687362773

• Emakumea garbiketarako prest. ☎ 943742201 (13:00-17:00 edo 20:30etik aurrera)

• Emakumea nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketarako prest.

☎ 678117022

• Euskara errefortzuetarako LH eta DBHko klase partikularrak ematen dira. ☎ 943531654

• Emakumea nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketarako prest.

☎ 687362773

• Emakumea nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketarako prest.

☎ 637966749

• Neska goizez etxeak garbitzeko prest. ☎ 636303262

• LHko klase partikularrak ematen dira. ☎ 686197248

• Emakumea sukalde laguntzaile lanetarako prest. ☎ 654610231

• Emakumea nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketarako prest. Esperientziaduna.

☎ 646235195/636362251

• Emakume arduratsua etxeak garbitzeko prest. ☎ 943743251

• Emakumea nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketarako prest.

☎ 671486769

• Gurutze puntuan lanak egiten ditut: jaiotza, jaunartze edo ezkontza koadroak, mantak, toailak...

☎ 676444171

• Emakume euskalduna nagusiak zaintzeko prest. Ospitalean edo etxean. ☎ 693010168

• 40 urteko gizon euskalduna lanerako prest. Gida baimenarekin.

☎ 661225149

• Mutila ostalaritzan edo nagusiak zainduz lan egiteko prest.

☎ 639945935/943531608

• Mutila pinturan edo eraikuntzan lan egiteko prest. ☎ 658164787

• Emakumea nagusiak zaindu, garbiketak eta plantxa egiteko prest. ☎ 639505373

• Neska lanerako prest.

☎ 696204053

• Neska lanerako prest.

☎ 669064252

• Emakumea nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketarako prest.

☎ 638333816

• Mutila pinturan edo eraikuntzan lan egiteko prest. ☎ 638333816

• Neska lanerako prest.

☎ 646832693

ESKAINITZA

• Pintore apendizta behar da.

☎ 660522587 (Fernando)

• Azpeitiko Hartz Klinikarako erizain teknikaria behar da.

☎ 943816736

• Kamareroak behar dira asteburuetarako. ☎ 688623668

• Bitxiak barruko erropak eta lurin produktuak saltzeko jendea behar da. Irabazi onak. Ez da esperientziarik behar. ☎ 607824892

• Kamareroa behar da.

☎ 943743196

• Parafarmazian lan egiteko dietista behar da.

☎ 686045321

• Kamareroa behar da barra eta mahaiak zerbitzeko. Astelehenetik zapatara. ☎ 635751642

• Jatetxerako kamareroa behar da.

☎ 943121262

• Neska behar da aste barruan, 12:30etik 15:30era tabeman lan egiteko. Euskalduna, 28 urtetik gorakoa. ☎ 943741416

ABISUAK

• Upaitza inguruan poltsikoko telefonoa aurkitu nuen, Nokia 2610. Udaltzaingoan laga dut.

• Katu persiarra oparitzen dut ezin dudalako zaindu.

☎ 647067666 (Sorkunde)



Arrate Garate

Arrate, beti izango zaitugu gogoan

V. URTEURRENA

Urteurreneko meza izango da, larunbatean, urriak 27, arratsaldeko 19:00etan parrokiari.

Joango zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.



Etxekoak

[ZORIONAK]



▶ Zorionak, **Idoia** hilaren 25ean 10 urte egingo dituzulako. Etxekoen, Amaia, Asier eta lehengusina Leireren partez.



▶ Zorionak, **Nerea**, hilaren 30ean bi urte egingo dituzulako. Etxekoen eta bereziki, Mikel eta Ceciren senideen partez.



▶ Zorionak, **Ibai**, zure 3. urtebetetzean. Muxu handi bat familiakoen eta bereziki, gurasoen partez.



▶ Zorionak, **Nerea**, hilaren 25ean zure eguna izan delako. Familiako guztien partez.



▶ Zorionak **Lore!** Azkenean heldu da zure eguna! 4 kandela dituzu zain! Ondo pasa eta muxu potolo bat denon partez.




▶ Zorionak, **Aitor**, hilaren 31n 10 urte egingo dituzulako. Muxu handi bat familiakoen partez. Ondo pasa!



▶ Zorionak, **potxola**, zure 2. urtebetetzean. Mila kilo muxu etxekoen partez. Sorgintxo!



▶ Zorionak, **Aitor**, igandean 10 urte egingo dituzulako. Ondo pasa eta muxu handi bat familiakoen partez.



▶ Zorionak, **Janire**, bihar bi urte egingo dituzulako. Muxu handi bat familiakoen partez. Maite zaitugu pila pila, patata tortila...



▶ Zorionak, **Maialen**, 8 urte egin dituzulako. Zein bizkor pasa den denbora! Muxu bat guraso eta, bereziki, ahizpa Iratiren partez.



▶ Zorionak, **Markel** Ondo-ondo pasa zure egunean. Familiakoen partez.



▶ Zorionak, **Raul**, etxeko guztien partez.




▶ Zorionak, **Mikel eta Ander!** Urteko bat beteko duzue! Muxu asko familiakoen partez.



▶ Zorionak, **pareja!** Ondo pasa zuen ezkontza egunean. Lagun bat, Carla, Ander eta koadrilakoen partez.



▶ Zorionak, **bikote!** Dagoeneko leirek 9 eta Mirenek 10! Ondo pasa! Astigaraga eta Iriondo familiakoen partez.



▶ Zorionak, **Befat eta Intza** datorren asteartean urteko bat egingo duzuelako. Patxo handi bat etxekoen partez.

San Bartolome, 18
Tel. 943 74 08 49

karkizano

San Frantzisko, 14 – Tel. 943 74 05 49

MAHASTI

Jose Angel Zabala
URDAITEGIA eta ARDANDEGIA

Merkatu Plaza, 30-33-34 • Tel.: 615 76 03 72

Zerbitzuak



[OKINDEGIA]

URRIA

28 igandea DOÑA MERCEDES

AZAROA

1 osteguna IZAGIRRE

4 igandea FOTERO



[FARMAZIAK]

26	Ibañez
27	Bidasolo
28	Bidasolo
29	Etxeberria (Santa Ana)
30	Fernandez
31	Yudego
1	Yudego
2	Etxeberria (Errosario)
3	Bidasolo
	(* Goizez Ibañez)
4	Ibañez
5	Bidasolo
6	Etxeberria (Santa Ana)
7	Fernandez
8	Yudego
9	Zabaleta

KANPOKO FARMAZIAK

IBÁÑEZ

Rekalde, 1 Soraluze.

Tel: 943 75 16 38

FERNANDEZ

Herriko enparantza 4, Garagarza.

Tel: 943 75 61 42

ZABALETA

Kalebarren, 9 Soraluze.

Tel: 943 75 13 84

* Beti dago guardiako farmazia
Eibar/Eimua zonaldean.



[AUTOBUSAK]

ELGOIBAR - DONOSTIA

Astegunak: 6:55, 7:15, 7:45, 8:15,
8:35, 9:05, 10:45, 13:45, 14:05, 14:45,
15:45, 18:45, 20:45

Larunbatak: 7:05, 7:15, 9:05, 10:45,
11:05, 13:45, 15:05, 18:40, 19:05

Igandeak eta jaiegunak: 9:05, 9:45,
13:05, 13:40, 17:05, 18:40, 20:40,
21:05

DONOSTIA - ELGOIBAR

Astegunak: 6:15, 7:00, 8:00, 9:30,
12:30, 13:00, 13:30, 14:30, 15:00,
17:30, 18:30, 19:00, 19:30, 20:45,
21:00

Larunbatak: 8:00, 12:00, 12:30, 15:00,
16:00, 17:30, 19:30, 20:45, 21:00

Igandeak eta jaiegunak: 8:00, 12:00,
12:30, 16:00, 19:30, 20:00, 20:45.

PESA: 902101210

ELGOIBAR - MENDAROKO OSPITALA

Astegunak: 6:15, 6:40, 6:45, 7:35,
8:15, 8:45... ordu erdika. Azkena;
20:45.

Asteburuak eta jaiegunak: 7:15ean
hasita, orduka. Azkena; 22:15.

MENDAROKO OSPITALA - ELGOIBAR

Astegunak: 6:55ean hasita, ordi erdiro.
Azkena 21:55.

Asteburuak eta jaiegunak: 7:55ean
hasita, orduka. Azkena, 21:55.

EUSKOTREN: 902 543 210

[26 BARIXAKUA]

22:15 LA MOSAI BLANCA

HAIZEA taldeak antolatuta
Hizlaria Eskame Larrinaga
Kultur Etxean

[27 ZAPATUA]

11:00 PERKUSIO TAILERRA

DBHkoentzat

Kultur Etxeko sotoan

Antolatzailea: Gaz-T

æek
euskaltegiak 25 urte
"Euskara herri bati eta
bere kulturari diodan
errespetuagatik ikasi
dut. Gogorra izan
zen baina merezi
izan zuen."
Elgoibarko **æek** euskaltegia
Plazo Txikia, 3
Tel.: 943 74 13 32
elgoibar@ask.org

LA ZANEF
Pintxoetan aukera zabala
P. Muguruza, 7 Tel: 943 74 16 76

[28 DOMEKA]

10:00 MENDI IRTEERA

URNOBITZARA

Antolatzailea: Ikastolako

Gurasoak

Irteera: Ikastolatik

Nora: Umobitza (644 m.)

12:30 UDAL MUSIKA

BANDAREN KONTZERTUA

Herriko Antzokian

Zuzendaria: Jose Antonio

Osoro

Egitaraua: "Las Provincias"

(V. eta A. Terol); "Flotte Bursche"

(Fr. Von Suppe); "The Pink Panther"

(Mancini-De Mei); "El Chaleco

Blanco" (F. Chueca); "The Best of

Mancini (H. Mancini).

[3, BARIXAKUA]

11:30 "PIRATEN FESTA"

HH eta LH 1,2 eta 3ko haurrentzat

Plaza Handian

Antolatzailea: Atxutxiamaika

[4, ZAPATUA]

19:00 SABIN OREGIREN LANAK

Artista elgoibartarraren lanekin

osaturako erakusketaren

inaugurazioa

Kultur Etxeko erakusketa gelan

Azaroaren 14ra arte

11:00 DEBA BAILARAKO XXXIII.

PERRETXIKO ERAKUSKETA

Kultur Etxeko sotoan

Antolatzailea: Karakate Mikologi

Elkartea

[9 BARIXAKUA]

22.15 "MI MISTERIO DEL INTERIOR" ANTZEZLANA

Taldea: Ron la-la

Herriko Antzokian

Sarrerak salgai, goizez eta

arratsaldez, Kultur Etxean

ZINE

KARTELDEGIA

ELGOIBAR HERRIKO ANTZOKIAN

«Caotica Ana»

26, barixakua: 22:15

27, zapatua: 19:00-22:15

28, domeka: 19:00-22:15

29, astelehena: 21:30

"Erase una vez un cuento al revés"

28, domeka: 16:30

«La carta esferica»

1, eguena: 19:00-22:15

2, barixakua: 22:15

3, zapatua: 22:15

4, domekia: 19:00-22:15

5, astelehena: 21:30

"Movida bajo el mar"

3, zapatua: 19:00

4, domekia: 16:30

"El infierno" (Z.K.)

8, eguena: 21:30

EIBAR, UNZAGA

«El orfanato»

26, barixakua: 19:30-22:15

27, zapatua: 17:00-19:30-22:15

28, domeka: 17:00-19:30-22:15

29, astelehena: 19:30-22:15

30, martitena: 19:30-22:15

31, eguaztena: 19:30-22:15

BARREnek ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketen erantzukizunik.

Ordu aldaketa larunbatean

Ordu aldaketa egin beharko da, bihar, larunbatetik igandera bitarteko gauean. Urriaren 28an, beraz, ordubate atzeratuko ditugu erlojuak. Honela, goizaldeko 3:00etan 2:00ak izango dira.



3:00



2:00



Clínica Oftalmológica
RECALDE
Oftalmología Clínica

www.clinicarecalde.com

Plaza Barria, 2 - 2º - EIBAR - Tfnoa.: 943 20 18 44

Atzera hegira



1968. urteko erretratu zahar hau **Martin Garagarzak** laga digu. Santa Ana kalean zegoen Biardana Elkarte zaharraren kanpoaldean aterata dago argazkia, Giza Eskubideen Parkea dagoen inguruan. Elkarte hori izan zen herrian sortu zen lehenengoa. Erretratuan agertzen diren guztiak hilda daudela esan digute. Goian, ezkerretik eskumara: **Ezezaguna**, **Faustino Badiola (Antxola)**, **Jose Garagarza (San Migel)**, **Lucio Arregi (Oleta)**, **Daniel Arreitunandia (Mendaroko tren estazioko nagusia)**, **Benito Aranberri (Gorriñaga)**, **Ayerdi (Nafarroako egur saltzailea)**, **Jose Aranberri (Aitz Bizkar)**, **Antonio Arizabalaga (Armueta)**.

Bigarren ilaran: **Jose Olazabal (mendaroarra, Eibarko Arratera igoera txirindulari proba irabazi zuen lehenengoa)**, **Hilario Arriola (Artañola)**, **Joakin Izagirre (Benta)**, **Muguruza (eibartarra)**, **Obdulio Fernandez, Txomin Osoro "Katxo"**, **Aldasoro (plaentxiarra)**, **Agustin Gurrutxaga (Berdeskunde)**, **Juan Jose Arrieta**.

Hirugarren ilaran: **Esteban Larrañaga (Lugarixa)**, **J.M. Loiola (Kortaso)**, **Jose Urkiri (Gandixa Errota)**, **J.M. Uria (Olaso)**, **Nafarroako egur saltzailea**, **Juanito Artetxe (Andikano)**, **Jose Lizarralde (Agarre)**.

ESKERTZA



1990ko martxoaren 6an hil zen **Lucio Ondarza Alberdiren** eta 2006ko urriaren 26an hil zen **Beatriz Martinez Gomezen** oroimenez meza izango da larunbatean, hilak 22, arratsaldeko 19:00etan Parrokian.

Joango zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.



I. URTEURRENA



2006ko urriaren 27an hil zen, 92 urte zituela, **Anastasio Arrillaga Lizundiaren** oroimenez I. urteurreneko meza izango da, larunbatean, urriaren 27an, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokian. Joango zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.





RENAULT
vehiculos comerciales

Zuk beste sinisten dugu zure negozioan eta lagundu egin nahi zaitugu.
Azken belaunaldiko injezio zuzeneko motor potenteagoak.

Kangoo



Trafic



Master



Autonomo edo enpresaria bazara gure **ibilgailu komertzial** guztietan:

- **%23ko deskontua***.
- **Finantziazio baldintza bikainak***.



* Autonomo eta enpresaria eskaintza berrala 07-10-31 arte. Ezin zara beste promozioekin gehitu. Injezio zuzen modeloak: Kangoo Express Comfort, Trafic Furgoneta Liberra Normala eta altuzako Master Furgoneta Erakia. Renault ibilgailu komertzialen kategorian: konsumo mixtoa (l/100) 5,3/6,8/9ra. CO₂ isurketa (g/km) 139/163/235era.

RENAULT
AUTOBERRI

ARRASATE - AZPEITIA - ELGOIBAR - IRUN - TOLOSA



Chevrolet bat nahi baduzu, orain errazagoa da GIAUTOri esker.
Pasa mezua!



Promozio honen balioa, 07-12-31 baino lehenago matrikulatutako Chevrolet automobil guztientzako da.

Giauto

EIBAR
Otaola, 27
Tlf: 943 202 500
clientes@giauto.es

OLABERRIA
Karabi Ind.z/g
Tlf: 943 885 150
www.giauto.es

INORK GALDU NAHI EZ DUEN
UMORE ETA MUSIKA KONPAINIA

2007KO MAYTE SARIETARA IZENDATUAK

Ron Lalá
presenta

mi
misterio
del
interior
(erdaraz)



Ron lalá antzerki taldea

**AZAROAK 9, OSTIRALA
22:15ean
HERRIKO ANTZOKIAN**



KULTURA SAREA



FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA



SAREA

HAUR ANTZERKIA

ETA ZER?

DAR-DAR PRODUKZIOAK

5 URTETIK
AURRERAKO
HAURRENTZAT

AZAROAK 11, IGANDEA

16:30ean

HERRIKO ANTZOKIAN

